


ZIGOITIA OINEZ: memoria gogoratzeko

Bi gerra-frontek topo egin zuten Zigoitia eta Legutio inguruan, lurralde horietan bizi izan den azken liskar handian. Bi defentsa-sistema, hilabete gutxi batzuetan aktibo mantendu zirenak.

Abandonatuta geratu zirenean, lekuko gisa 1.500 hildako utzi zituzten, 4.000 zaurituez gain, sufrimendu eta miseria handia, ondorengo errepresioa, oraindik ere bizi izan zutenen oroimenaren sakonean mantentzen dena, eta lur honen gainazalean irauten duten zauriak. Harrezkero, paisaia asko aldatu da, basoak bere lurra berreskuratu du nolabait, eta gorpuak, lubakiak, bunkerrak, lehergailuak eta balak ezkutatu ditu, eta, geroxeago, zingirak desitxuratu eta edertu egin zuten batzuek "Suitza txikia" deitu dutena.




Zigoitiak Bizkaiarekin duen muga izaerak garrantzia handia eman zien inguru hauetan gertatu ziren batzuen eta besteen arteko eraso eta kontraerasoei. Hori guztia gogoratu nahi dugu artikulu honetan, bai, baina oso

bestelako begirada batekin; izugarrikeria hark, nahiz eta laurogei urte igaro, utzitako arrasto eta hondakinen ikuspuntutik egingo dugu atzera.

Gerrak lur azalean utzitako bunkerrak, lubakiak eta bestelako arrastoak dira gure helburua, gelditzen denak oroimena galtzen ez diezagun utzi.

Ekimen askok lagundu digute azken urteetan egoera honetara iristeko. Batetik Abadelaueta Elkartearen eskutik eta bertako hainbat lagunen laguntzaz, Zigoitiko iparraldean egindako arakatze lan sakonak eman ditu bere fruituak: Nafarratetik Muruko urtegietaraino, eta handik bueltan iparralderago, Oketa eta Ubide inguruetaraino jarraitutako fronte ezberdinetan aurkitu ditugun lubaki, bunker eta bestelako gerra arrastoak arakatu, katalogatu, geolokalizatu eta mapa bat sortu dugu.



Gai honetaz ari garelarik, ez diogu inoiz nahiko eskertuko Josu Santamarina UPV-EHuko irakasle eta ikerlariari egin digun ekarpena. Baragatik izan ez balitz, gutxi, oso gutxi ezagutuko genuke gure historia hurbila. Elementu hauen guztien bilaketa, ikerketa, testuingurua, idazlanak eta pedagogia lanak

bultzatu ditu egiten ari garen guztia gauzatzeko.

Baina bilaketa eta ikerketa ez dira izan egin nahi genuen lanaren lehenengo pausua baino. Ikasi dugun guztia irakatsi eta erakutsi nahi dugu, eta hasieratik garbi genuen zigoitiar eta nahi duen guztiengana iritsi nahi genuela ikus eta ikas dezaten partzialki edo erabat ahaztuta genuen gure geografia urratua eta zigortua. Zer modu hoberik mendia eta fronteen bideak erakustea baino! Beti izan dugu txangoak prestatzeko, egiteko eta markatzeko asmoa. Eta iritsi da unea.

Aurreko urteetan garbitutako bide batzuk prest ditugu lehenbailehen markatzeko, informazioa eta mapak Udalaren web orrian sartzeko, eta oinezko zein txirrindularien eskuetan jartzeko.

Dauden gerra guneeetatik interesgarrienak eta aberatsenak aukeratu ditugu, eta bakoitzaren indarrak eta gogoak erabakiko du zein egin eta nondik norakoa. Guk gure gustura eskainiko dizkizuegu.

Bi fronteak egingo ditugu, oraingoz lau txangotan:

MATXINOEN FRONTEA. Bi etapatan banatu dugu: lehenengoa Murutik Okoiztaraino, eta letrekin (A, B, C...) identifikatu dugu. Bigarrena Zestafetik Nafarrateraino, zenbakiekin (1, 2, 3...). Luze samarra dena segidan egiteko. eta horregatik antolakuntza minimoa eskatzen du egun batean edo bitan egiteko oinez, eta autoak mugitzeko joan-etorrietan ibili gabe. Oso aberatsa eta erraza.

ERREPUBLIKAKO FRONTEA esaten diogu bigarrenari. Oraingoz Errepublikako frontearen zati interesgarrienak aukeratu ditugu, batetik Zizkinoko mendien magaletan, egun bakar batean egiteko, eta bestetik Oketa eta urtegien inguruetako bazterrak miazteko:.

aukera handikoak eta izugarri ederrak, biak ala biak.

OHARRAK

.-Artikulu honetan gunen nagusiak zenbaki-
letrak eta GPS lokalizazioarekin jarri ditugu.

.-Zenbaki bakoitza Google EARTHen (web orrian) eta WIKILOCen aurki liteke, eta gunen bati egiten dio erreferentzia, batzuetan lubaki, bunker zonalde bat, beste batzuetan eliza, arrasto bereziren bat, informazio gunea...

.-Ibilaldi hauen informazio historikoa osatzeko "Zigoitiko Akelarrea" 1, 8 eta 11ra jo liteke.